Cáritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

# CARITASEN KANPAINA

2022.eko ABENDUAren 18a

## ABENDUALDIKO 4.DOMEKEA (A)

## *Gabonetako Kanpaina: «Cultiva cuidados / Zaindu, eskutik heldu»*

### *Liturgia lagungarriak*

***Atarikoak:***

- *Lagungarri honeek liturgiarako talde eragilearen esku iztea komeni da.*
- *Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitekezala.*
- *Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.*

### SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gabonak atarian doguz. Abendualdiko azken domeka honetan, Maria itxaropenaren Amabirjinari begiratzeko esaten jaku.

Berak irakatsiko deusku Jainkoari entzuten, Jainkoagaz batera egoten, Jainkoa maitatzen eta Jainkoari harrera egiten.

Domeka honetan, Caritas hurreratuko jaku mezu honegaz: «Cultiva cuidados / *Zaindu, eskutik heldu*». Kristau izanda, Gabonak beste era batera bizi behar doguzala gogoratzen jaku; hau da, gure etxeak argiz, barrez eta topaketez beteteaz batera, gizatasunez be bete egin behar doguzala kutsatzeko eta banatzeko gure izaera eta biziera garatzen dogun leku guztietan. Caritaseko eragile lez, kristau alkarte lez, justiziaren alde jarduteko eta Jainkoaren erreinua iragarteko deia entzun dogun pertsona lez, egundoko erronka dogu aurrez aurre: lurraldez lurralde haragituz itxaropena zabalduko daben eta alkartasun eta senide lankide-

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

18 de DICIEMBRE de 2022

## DOMINGO 4 DE ADVIENTO (A)

## *Campaña de Navidad: «Cultiva cuidados / Zaindu, eskutik heldu»*

### *Subsidios litúrgicos*

***Notas previas:***

- *Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.*
- *Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.*
- *La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.*

### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Estamos a las puertas de la Navidad. Este último domingo de Adviento nos invita a fijarnos en María, la Virgen de la esperanza.

Berak erakutsiko deusku Jaungoikoari entzuten, Jaungoikoagaz batera egoten, Jaungoikoa maitatzen eta Jaungoikoari harrerea egiten..

Cáritas se acerca a nosotros este domingo con este mensaje: «Cultiva cuidados / *Zaindu, eskutik heldu*». Hoy se nos recuerda que como cristianas y cristianos estamos llamados a vivir una Navidad diferente en la que no solo llenemos nuestras casas de luces, de risas y encuentros, sino de humanidad para contagiar y para compartir en cada lugar y espacio donde somos y vivimos. Como agentes de Cáritas, como comunidad cristiana, como personas que nos sentimos llamadas a trabajar por la justicia y a anunciar el reino de Dios, tenemos el reto de crear comunidades de esperanza que se encarnen en la realidad de los territorios, y tejan



→

→

tzarako sareak josiko dabezan alkarteak sortu.

Emon deiogun hasiera Eukaristiaren indarra emongo deuskun ospakizunari.

## SARRERAKO ABESTIA

## ABADEAREN AGURRA

Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

## KOROAREN KEINUA ETA DAMU OTOITZA

Abendualdiko azken domekaz laugarren eta azken kandelea biztean, Maria eta Jose Jesusen gurasoengan pentsatuko dogu. Ez dau sekula inork eurak besteko irrika, samurtasun eta maitasunez itxaron. Gabon honeetan, argia eroan gura dogu eta argiaren eroale sentitu, Gabonen sena erantzukizunez bizi. Berak amesten dauan eta guk itxaroten dogun mundu barria eskatuko deutsagu Jaunari. Zatoz bizkor, Jauna, zatoz gu salbatzera!.

*Laugarren kandelea biztu eta, ondoren, esan:*

— Ilunpetan bizi diranen artean argi egitera zatozan munduaren Argia: Erruki, Jauna.

— Zure herria egia eta zuzentasunaren bideetatik zuzentzera zatozan gizadiaren gida: Kristo, erruki.

— Gure makaltasunaren zauriak osatzera zatozan Bizi-iturria: Erruki, Jauna.

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (IS 7, 10-14)

Lehenengo irakurgaian, profetak, Jaungoikoaren izenean, orakulua aurre iragarten dau: birjina batek umea izango dau. Jaungoikoa Israel bere herriagaz dagoala adierazoten dau profetak iragarpen honegaz.

redes de solidaridad y cooperación fraterna.

Iniciamos la celebración en la que recibiremos la fuerza de la Eucaristía.

## CANTO DE ENTRADA

## SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Dios, nuestro Padre y del Señor Jesucristo estén con todos vosotros.

## GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender la cuarta y última vela, en este último domingo del Adviento, pensamos en José y en María, los padres de Jesús. Nadie lo esperó con más ansia, con más ternura, con más amor. Esta Navidad queremos llevar luz y que nos sintamos portadores de luz, responsables de vivir el significado de la Navidad Le pedimos al Señor, el mundo nuevo que él sueña y nosotros esperamos. ¡Ven pronto, Señor; ven a salvarnos!

*Se enciende el cuarto cirio. A continuación, se dice:*

— *Argitzen gaituzuna*. Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas: Erruki, Jauna / Señor, ten piedad.

— *Gidatzen gaituzuna*. Guía de la humanidad, que quieres abrir a tu pueblo sendas de justicia: Kristo, erruki / Cristo, ten piedad.

— *Osatzen gaituzuna*. Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad: Erruki, Jauna / Señor, ten piedad.

## MONICIÓN 1ª LECTURA (IS 7, 10-14)

En la primera lectura, el profeta, en nombre de Dios, preanuncia un oráculo: una virgen concebirá. Con este anuncio, Isaías manifiesta que Dios está con su pueblo Israel.



→

## OHARRA 2 IRAKURGAIARI (ERM 1, 1-7)

Paulo apostoluak, Erromatarrei idatzitako gutunaren hasieran, Kristoren misterioaz jarduten dau. Danok, Jaungoikoaren maiteok, Kristorengan santu izateko eta misino ebanjelizatzailea beteteko dei egiten deuskun Jaungoiko Aitaren egitasmoaren barruan gagoz.

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Bat egin daigun otoitzean, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian.

1. Eleizaren alde; harrera, abegia eta senidetasuna suspertu daizala. Eskatu deiogun Jaunari.

2. Caritasen alde; mundu barria amestu daien beti eta dei egin deiguen mundu hori egia bihurtu daigun, garan eta daukaguna banatuz. Eskatu deiogun Jaunari.

3. Agintarien alde; batez be baztertuen aldeko zerbitzu eta eskaintzazko eredu izan daitezan, danontzako lekua dauan gizartea eraiki ahal izateko. Eskatu deiogun Jaunari.

4. Gu guztion alde; Gabonak kristau senez bizi daiguzan, ingurukoei argi eginez eta mundu hobea egiten saiatuz. Eskatu deiogun Jaunari.

Aita, zure Eleiza erne dago zure Semearen zain eta bere erreguak zuzentzen deutsuz. Onartu eizuz ontasunez. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Bakarka eta taldean burutu daiguzan ekintzen araberakoa izango da egin daiguna edo egin barik itzi daiguna, mundua guztion etxe egiteko eskaini eta gehitu daikeguna, danok bakean, alkar zainduz eta Kreazinoa zainduz bizi gaitezan. Gaur batzen dan dirua, Eleizbarrutiko Caritasen esku itziko da. Onuradun izango diran guztien izenean, eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

## MONICIÓN 2ª LECTURA (RM 1, 1-7)

El apóstol Pablo, al inicio de su carta a los Romanos, habla del misterio de Cristo. Todos, amados de Dios, entramos en el proyecto del Padre, que nos llama en Cristo a ser santos y a cumplir la misión de evangelizar.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera.

1. Para que la Iglesia sea siempre comunidad que se distinga por la acogida, la hospitalidad, el encuentro fraterno, y así llene de valor nuestra existencia. Roguemos al Señor.

2. Para que Cáritas y quienes colaboran con ella, no dejen de soñar con un mundo mejor y nos inviten a hacerlo realidad compartiendo toda la riqueza que somos y tenemos. Roguemos al Señor.

3. Para que quienes tienen poder en el mundo sean modelo de servicio y entrega, especialmente a los excluidos y así sea posible una sociedad donde cuenten todas las personas. Roguemos al Señor.

4. Para que vivamos la Navidad con sentido cristiano, siendo luz para quienes nos rodean con el deseo de hacer el mundo mejor. Roguemos al Señor.

Padre, tu Iglesia vigilante en la espera de tu Hijo, eleva a ti sus ruegos. Acógelos en tu inmensa bondad. Por Jesucristo, nuestro Señor.

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Lo que hagamos o dejemos de hacer, lo que podamos aportar y sumar para hacer de este mundo una casa común donde podamos habitar en paz y al cuidado de las personas y del resto de la Creación, depende de nuestras acciones personales y comunitarias. La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias por vuestra generosidad.

## OTOITZA JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

**"Despiértame". Ixcís (Cristóbal Fones, sj).**
https://www.youtube.com/watch?v=UD-2yEVpqNU

**Esnatu gaizuz, Jauna!**
**Argi hau biztu gura dogu, argiontzia bizten dauan harek lez,**
**gauez etorri datorren**
**lagunaren bila atarateko,**
**gure etxea,**
**etxe abegitsua dala esateko.**

**Altxatzea gura dogu**
**Zuri itxaroteko,**
**Zuri harrera pozgarria egiteko.**

**Itzalez inguratuta gagoz.**
**Losintxek lokartu egiten gaitue.**
**Esna eta erne egon gura dogu,**
**argirik argiena dakarskuzulako,**
**argirik sakonena**
**eta poztasunik egiazkoena.**
**Aho batez dinotsugu:**
**Zatoz, Jesus Jauna, zatoz**

## ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Prestatu daigun gure bihotza, Gabon honeetan besteak maitatzearen eta besteen maitasuna jasotzearen esperientziaren poza ospatu eta konpartitu daigun.

Zoaze Jaunaren bakean!




## ORACIÓN DURANTE EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

**"Despiértame". Ixcís (Cristóbal Fones, sj).**
https://www.youtube.com/watch?v=UD-2yEVpqNU

**¡Despiértanos, Señor!**
**Queremos encender esta luz**
**como aquel que enciende una lámpara**
**para salir en la noche**
**al encuentro del amigo que ya viene,**
**para decirte que nuestra casa es una casa acogedora.**

**Queremos levantarnos para esperarte preparados,**
**para recibirte con alegría.**

**Muchas sombras nos envuelven**
**Muchos halagos nos adormecen.**
**Queremos estar despiertos y vigilantes,**
**porque tú nos traes la luz más clara,**
**la más profunda y la alegría más verdadera.**
**Juntos te decimos:**
**¡Ven, Señor Jesús, ven!**

## DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

Preparemos nuestro corazón, para que esta Navidad podamos celebrar y compartir la alegría de nuestra experiencia de amar a las demás personas y de sentirnos amadas por ellas.

Podéis ir en paz.





Cáritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao

Erribera 8. 48005-BILBAO ☎ 94 402 00 99 caritasbi@caritasbi.org www.caritasbi.org